

BIDAIA ASISTENTZIAKO ASEGURU POLIZAREN BALDINTZEN LABURPENA GAZTE TXARTELAREN TITULARRENTZAT

BILBAO BIZKAIA KUTXAK, ondorio horietarako, COMPAÑÍA EUROPEA DE SEGUROS, S.A rekin kontratatu duen 07632000290 zk.dun polizaren baldintza orokorreari eta bereziei atxikita jaulkia

ASEGURATUA:

Aseguratua deritzo, GAZTE-TXARTELA baten titularrari.

GEOGRAFIEREMUA:

Aseguru honen garantiak balioko dute: Espainian, Aseguratuaren ohiko probintziatik kanpora edo Aseguratuaren ohiko egoitzatik 30 km baino gehiagora, eta Europako erresuma guztietan, Mediterraneoaren ertzekoak barne, eta munduko gainerakoan.

Gastu medikoen, kirurgikoen, farmazeutikoen, nahiz ospitaleratze eta anbulantziako gastuen bermeak Espainian ondorioa izateko, istripua gertatu behar izan behar da eta beti ere Aseguratua bere ohiko egoitza dagoen probintziatik kanpora dagoela.

Hildakoak berraberriratzearen bermeak ondorioa izateko, Aseguratua atzerrian bidaiari ibili behar izan da.

GARANTIEN ONDORIOA ETA IRAUPENA:

Kontratu honen bermeak, aseguruak, estalduren geografi eremuaren barruan joate, egote edo itzultze desplazamenduetan izango dute ondorioa. Haiek ez dute garantiarik elkarren segidako 90 egunetik gorako bidaiari-egonaldietan.

BERMEAK:

Hurrengo berme hauek daude estalita, ondoren zehazten diren mugekin:

1.- PERTSONENTZAKO ASISTENTZIA (gaixotasunagatik edo istripuagatik)

Aseguratuak 24 orduko zerbitzu iraunkorra ipintzen du urteko egun guztietarako Aseguratuaren eskura, Aseguratu horri bidaiatzen ari denean asistentzia emateko.

1.1.a) Gastu medikoak, kirurgikoak, farmazeutikoak, nahiz ospitaleratze eta anbulantzia gastuak, atzerrian sortu direnean, atzerrian gertatutako gaixotasun nahiz istripuren batek eraginda bada, eta gehienez 3.005,06€.

Premiazko odontologi gastuek 60,10€rainko estaldura dute

1.1.b) Gastu medikoak, kirurgikoak, farmazeutikoak, nahiz ospitaleratze eta anbulantzia gastuak, (istripuagatik) Espainian sortu direnean, beti ere Aseguratua bere ohiko egoitza dagoen probintziatik kanpora dagoenean, eta gehienez 300,51€.

1.2. Hoteleko egonaldia luzatzeak eragindako gastuak

Orobat, estaldura dute medikuak aginduta hoteleko egonaldia luzatzearen gastuak, gehienez ere 60,10€ eguneko eta istripua izandako Aseguratuko, eta gehien-gehien denetara 601,01€.

1.3. Zaurituak edo gaixoak berraberriratzea edo osasun-garraioa

Aseguratuari gertatutako istripu nahiz gaixotasun kasuetan, Aseguratzailleak antolatzen du eta bere ardurapean hartzen, beharrezko diren instalazioak dauzkan ospitale-zentrorako nahiz haren etxerainoko garraioa.

Orobat, Aseguratuaz arduratu den medikuarekin kontaktuan jarri ostean, Aseguratzaillearen lantalde medikoak gainbegiratu du emandako atentzioa egokia izan dadin.

Kasu bakoitzean erabilitako garraio-bitartekoa Aseguratzaillearen lantalde medikoak erabakiko du, kasuaren premiazkotasunaren eta larritasunaren arabera. European eta Mediterraneoaren ertzeko herrialdeetan bereziki atondutako osasun-hegazkina ere erabili daiteke.

1.4. Beste aseguru batzuk berraberriratzea

Aseguru bat edo gehiago, 1.3 atalean azaldutako edozein kausarengatik berraberriratuak edo lekualdatuak izan direnean eta inguruabar horrek gainerako Aseguratuari hasieran aurreikusitako bitartezkoek etxera itzultzea eragozten badie, Aseguratzailleak bere gain hartuko ditu gainerako Aseguratuak euren ohiko egoitzarainoko edo Aseguratu lekualdatuta edo berraberriratu dagoen ospitalerainoko garraioari dagozkion gastuak.

1.5. Hildakoen berraberriratzea edo garraioa

Aseguratu atzerriko bidaiari dela hilez gero, Aseguratzailleak antolatzen du gorpua heriotza gertatu den lekutik eta Espainiako eta Frantziaren hegoaldeko inguru mugakideetako ehorzketa-lekurainoko garraioa eta bere gain hartzen ditu garraio horren tramiteak eta egokitzapen-gastuak.

Barruan sartzen da lekualdatzeko baltsamatzea eta beharrezko hilkutxa, gehienez 300,51 €.

Garantia honetatik kanpo daude ohiko hilkutxaren ordainketa eta ehorzketa eta zeremonia gastuak

1.6. Mezu-transmisioa

Aseguratzaillea arduratuko da, Aseguratuak garantiaz hauek estaltzen dituzten gertaeren ondorioz eskatzen dizkieten premiazko mezuak transmititzeaz.

1.7. Ordezkoa aurkitzea zaila den gauzen bidalketa

Bidaia hastean Aseguratuari premia bizikotzat jo daitezkeen gauzak zein sendagaiak etxean ahaztu zaizkionean, Aseguratuak bidaliko dizkio, bera dagoen lekuraino, dagozkien herrialdeetako legeriari atxikita eta, beti ere, Aseguratu bera dagoen lekuan ordezkorik aurkitzea zaila denean edo garestiak direnean.

Orobat, Aseguratuari bidaiari egon den tokian edo tokietan gauzarik ahaztu bazaio edo lapurtu badiote, Aseguratzailleak bere gain hartzen du, hura edo haiek Aseguratuaren etxera birbidaltzearen gastuak.

Epigrafe honetan adierazitako kasuetan, Aseguratuak bidalketa antolatzea baino ez du bere gain hartuko, baita horren kostua ere, 601,01€raino.

1.8. Ekipajea aurkitzen laguntzea eta bidalketa

Ekipajeak galtzen direnean, Aseguratzailleak laguntza emango du bilatzeko eta aurkitzeko eskaria egiten eta gestioan, eta bere gain hartuko ditu Aseguratuaren etxeraino igortzearen gastuak.

1.9. Ospitaleratze-kasuan laguntzaile batentzako joan-etorria

Aseguratua ospitaleratu badute eta egonaldiak 5 egunetik gora iraungo duela uste bada, Aseguratzailerak joan-etorriko billete bat ipiniko du senideren baten eskura, bere etxetik abiatu eta haren alboan egoteko.

Orobat, ospitaleratzea atzerrian bada, Aseguratzailerak bere gain hartuko ditu senide baten hotel-egonaldiaren gastuak, dagozkion ziurtagiriak erakutsita, eguneko 60,10€raino eta gehien-gehien denetara 601,10€.

1.10. Aseguratua itzultzea senide zuzen baten heriotzagatik

Baldin Aseguratuak bidaia eten behar badu ezkontidea, lehenengo mailako aurreko nahiz ondorengoren bat, anaia/nebaren edo arreba/ahizparen bat hil delako, Aseguratzailerak bere gain hartuko du hura ehortziko duten Espainiako lekurainoko garraioa eta, kasu bada, gertaera jazo denean zegoen lekura itzultzeko billete bat, edo itzultzeko billete bi, laguntzailea ere aseguratutakoa bada.

1.11. Aseguratua itzultzea senide zuzen bat ospitaleratu dutelako

Bidaiaren haste-dataren ostean gertatutako istripu nahiz gaixotasun larriren baten ondorioz, Aseguratuaren ezkontidea, lehenengo mailako aurreko nahiz ondorengoren bat, anaia/nebaren edo arreba/ahizparen bat ospitaleratu dutela-eta, gertaerak egonaldia gutxienez 5 egunerako izatea eskatzen duelarik, Aseguratuak bere bidaia eten behar badu, Aseguratzailerak arduratuko Espainiako ohiko egoitzara joateko garraioaz. Orobat, Aseguratzailerak bigarren billete bat ere hartuko du bere kargura, itzultzea aurreratu zuen Aseguratuarekin zihoan laguntzailearen garraiorako, beti ere bigarren pertsona hori aldi berean poliza honek aseguratuta badago.

1.12. Aldez aurretik itzultzea etxean ezbehar larria gertatu delako

Aseguratzailerak garraio-billete bat ipiniko du Aseguratuaren eskura, baldin Aseguratuak berak bere bidaia eten behar badu beraren egoitza nagusian kalte larriak izan direlako, edo suak eraginda, beti ere suhiltzaileek esku hartu badute, edo lapurreta gauzatu batek, polizia-agintaritzari salatu bazaio, edo uriola larriak, halako eraz ezen, Aseguratua han egotea ezinbestekoa den, egoera horiek senide zuzenek edo konfiantzazko pertsonak konpondu ezin badituzte, baldin eta jazoera bidaia hasi ostean gertatu bada. Orobat, Aseguratzailerak bigarren billete bat ere hartuko du bere kargura, itzultzea aurreratu zuen Aseguratuarekin zihoan laguntzailearen garraiorako, beti ere bigarren pertsona hori aldi berean poliza honek aseguratuta badago.

1.13. Zigor-fidantza aurreratzea atzerrian

Zirkulazio-istripuren baten ondorioz Aseguratua atzerrian kartzelaratzen edo auzipetzen badute, Aseguratzailerak aurrerakin bat emango dio, dagozkion Agintariek exijitutako zigor-fidantzaren zenbatekoaren baliokoa, eta gehienez ere 6.000€.

Garantia honetan Aseguratzailerak beretzat atxikitzen du, Aseguratuari, aurrerakin horiek kobratuko dituela bermatuko dion abalen bat edo konpromisoa exijitzeko eskubidea. Edozein kasutan ere, aurreratutako kopuruak gehienez 60 eguneko epearen barruan itzuli behar dira.

1.14. Laguntza juridikoaren gastuak atzerrian

Zirkulazio-istripuren baten ondorioz atzerrian Aseguratua auzipetzen badute, Aseguratzailerak bere gain hartuko ditu abokatuaren gastuak, 1.500€raino pertsona Aseguratu bakoitzeko.

ZOR AITORPENA

Poliza honen arabera garantiarik eduki ez arren, baina Aseguratuak hala eskatuta, Aseguratzailerak ordaindutako kopuru guztiak, edo emandako zerbitzuen kostua Aseguratuak onartutako aurrerapenak dira, halako eraz ezen, luzeenez ere 60 eguneko epearen barruan Aseguratzailerari haiek itzultzeraz beharturik baitaude; epeko egunak Aseguratzailerak haiek eskatzen dizkien unetik kontatuko dira.

Horietan kasuetan eta Aseguratzailerak Aseguratuaren kontura aurreratzen dituen prestazio guztietan, Aseguratzailerak beretzat atxikitzen du, zerbitzu-prestazioa hasi aurretik Aseguratuari, aurreratutako zenbatekoa, edo, bestela, hura estaltzen duen abal edo bermeren bat eskatzeko eskubidea.

INGURUABAR BEREZIAK

Aseguratzailerak ez du erantzukizunik, ezinbestez edo halako erresuma zehatz bateko ezaugarri administratibo nahiz politiko bereziengatik gertatutako atzerapenetan edo ez-betetzetan.

SALBUESPENAK

Garantia honek ez ditu estaltzen:

a) Aseguratzailerari eskatu ez zaizkion garantiak eta prestazioak, beroriek haren adostasunez edo adostasunarekin gauzatu ez direnean, ezinbestez edo ezinezkotasun material frogatuaren kasuan izan ezik.

b) Honako kasu hauetan gertatutako ezbeharrak: gerra, manifestazioak eta herri-mugimenduak, terrorismo eta sabotaje ekintzak, lanuzteak, zirkulazio-istripuz sorrarazitako delituren batengatik edozein agintaririk atxilo hartzeak, libreki zirkulatzeko murrizpenak edo ezinbesteko beste edozein kasu, baldin eta ASEGURATUAK frogatzen ez badu ezbeharrak ez duela zerikusirik halako gertakariekin.

c) Motordun kirol lehiaketa ofizialetan zein pribatuetan (lasterketa nahiz rallya) jardutean sortutako istripuak edo matxurak.

d) Transmutazio edo desintegrazio nuklearretik eratorritako irradiazioek edo erradioaktibitateak eragindako ezbeharrak.

e) Mendiko, itsasoko nahi basamortuko erreskatea.

f) Pairamen kronikoen zein bidaia hasi aurrekoen ondorioz jazotzen diren gaixotasunak edo lesioak.

g) Edozein protesi motagatik egindako gastuak.

h) Aseguratuaren, Aseguru Hartzailearen, Eskubidedunen, edo Aseguratuarekin bidaiatzen ari direnen atzipez eragindako ezbeharrak.

i) Eskuz jarduten den lanbide batean aritzean gertatutako lesioak.

j) 9,02€tik beherako edozein gastu mediko nahiz farmazeutiko.

k) Buru-hiltzea edo Aseguratuak horretan saiatzean edo bere buruari nahita eragindako lesioak .

l) Toxikoak (drogak), alkohola, narkotikoak nahita irentsiz edo emanda hartuz edo medikuak agindu barik sendagaiak baliatzeagatik gertatutako istripuak.

2.- ERANTZUKIZUN ZIBIL PRIBATUA

Aseguratua hirugarrenei nahita eragindako gorputz-kalteen zein materialen erantzule zibil delarik eta horren ondorioz, eta Kode Zibileko 1902tik 11910erako artikuluen arabera, Aseguratuak diruzko kalte-ordainak ordaindu behar baditu, kopuruok bere gain hartzen ditu Aseguratzailerak, baina gehienez ere 90.000€.

Muga horretan sartzen dira judizioko kostu eta gastuen ordainketa eta, halaber, Aseguratuari exijitutako judizioko fidantzak eratzea.

SALBUESPENAK

Garantia honek ez ditu estaltzen:

a) Motordun ibilgailuak, aireontziak eta itsasontziak gidatzeagatik, nahiz su-armak erabiltzeagatik Aseguratuari dagokion Erantzukizun mota oro.

b) Lanbide, sindikatu, politika nahiz elkartze jarduera ororengatik sortutako Erantzukizun Zibila.

c) Auzitegi edo agintari mota oroko ezarritako multak edo zigorrak.

d) Edozein dela zioa, Aseguratuaren ardurapean utzitako gauzek izandako kalteak

e) Profesional gisa kirola egitetik eta zale gisa hurrengo hauek: alpinismoa, boxeoa, bobsleigh, espeleologia, judo, parakaidismoa, delta hegoa, motor bako hegaldia, poloa, rugbya, tiroa, yachting, borroka-arteak eta motordun ibilgailuz egiten direnak egitetik sortutako Erantzukizuna.

EZBEHARRA GERTATZEN DENERAKO JARRAIBIDEA

Asistentziagatik

Telefonoz eskatu beharko da asistentzia, dei-jasotzaileari kobratzeko nahi izanez gero, deitu **34-91 344 11 55** zenbakira (Madril), eta adierazi:

- Aseguratuaren izena.
- Gazte Txartelaren txartel-zenbakia eta luzapen-data
- Zauden lekuaren helbidea eta telefono-zenbakia.
- Agertutako arazoaren deskribapena

ASEGURATZAILEAri eskatu ez zaizkion garantiak eta prestazioek, beroriek haren adostasunez edo adostasunarekin gauzatu ez direnean, ez dute eskubiderik emango ondorengo ordainketarako, ez konpentsaziozko kalte-ordainerako.

Erantzukizun Zibilagatik

Idazki bat aurkeztu behar da eta bertan xeheki azalduta adierazi gertatutako jazoerak, eta kaltetuek aurkeztutako dokumentu guztiak, haien izena eta helbidea ere adierazita. Ez da onartu, negoziatu edo gaitzetsi behar ezein erreklamaziorik ASEGURATZAILEAk berak beren-beregi baimena eman barik.

JURISDIKZIOA

Aseguruaren Kontratutik eratorritako ekintzetarako epaile eskuduna Aseguratuk Espainian duen egoitzari dagokiona izango da eta baliorik gabea da aurkako itun oro.

